



Helburu du Goierriko merkatariei ikusgarritasuna ematea, tokiko merkataritza eta kontsumoa sustatzea eta herritarrek kontzientziazatzea

Hainbat euskarri sortu ditu BIDARIk kanpaina gizarteratzeko eta eskualdeko udalekin, merkataritza elkarteekin eta merkatariekin elkarlanean garatu da

Goierriko tokiko merkataritza sustatzeko helburuarekin jaio zen BIDARI lantaldea 2023ko martxoan, eta lehen kanpaina aurkeztu berri du prentsaurrean: “Kaixo Goierri!”.

Kanpainaren helburua da Goierriko komertzioei eta hauen atzean dauden familiei eta langilei ikusgarritasuna ematea, herritarrek Goierriko komertzioetara gerturatzeko eta bertan kontsumitzera deitzeko. “Kaixo Goierri!” kanpainak Goierriko dendarien, ostalarien eta zerbitzuetako langileen gertutasuna, konfiantza eta alaitasuna islatzen du, Goierriko kontsumitzearen onurak azpimarratzeko helburuarekin.

Izan ere, BIDARI taldearen ordezkariak adierazi dutenez, “eskualdeko bizitasunaren erantzule dira Goierriko merkatariek. Gure eskualdean 5200 familia bizi dira Goierriko negozio txikietatik. Gure herrietako kaleak bizirik matentzen dituzte haien dendak, tabernak eta zerbitzuen bidez, gertutasuna lehenetsiz eta alaitasuna zabalduz. Goierriko

merkatariei, ostalariei eta zerbitzuak eskaintzen dituztenei esker du gure eskualdeak aberastasuna. Eta herritarron ardura da Goierriko negozio txikiak babestea, tokiko saltoki horiek galtzeak gure udalerrietako paisaia eta jarduerak pobretzea ekarri baitezake. Tokiko negozioak gabe Goierri ez litzateke Goierri izango, eta haiek babesteko modurik onena da Goierri kontsumitzea”.

“Kaixo Goierri!”, eskualdeko merkatariekin elkarlanean garatuta

BIDARI lantaldeak sustatutako kanpaina hau eskualdeko merkatariekin elkarlanean garatu da, baita udalekin eta merkataritza elkarteekin ere. Merkataria dira kanpainako protagonistak eta hainbat euskarri sortu dira kanpaina gizarteratzeko. Esaterako, sare sozialetan eta herrietako pantailetan zabalduko den sentsibilizazio bideo bat sortu da, non tokiko merkataria agertzen diren, herri eta sektore desberdinetakoak: Idiazabalgo Alkizal Inmobiliaria, Lazkaoko SM Sport Nutrition, Beasaingo Gertu Aholkularitza, Ordiziako Arantxa Lentzeria Mertzeria, Mutiloako Telleria Gaztak, Lazkaoko 360 faktoria, Segurako Txokoa Elikagai Denda, Ordiziako Goierriko Baratza, Beasaingo Goierri Fisioterapia, Olaberriako Zezilionea, etab.

“Helburua izan da merkataria ordezkatzeko dituen kanpaina bat sortzea, haiei ahotsa eta protagonismoa emanaz, herritarrengana gerturatzeko eta Goierri guztiok osatzen dugula ikusarazteko”, azaldu dute BIDARI taldearen ordezkariak.

Horretarako, baita ere, landing page bat sortu da kanpainaren inguruko informazio guztia jasotzeko: kaixogoierri.eus. Bertan daude ikusgai sentsibilizazio bideoa eta baita merkataria bakoitzaren bideo indibidualak ere.

Gainera, Goierriko merkataria, ostalariak eta zerbitzuak gure herrietako kaleetan daudenez, kanpaina kalera ateratzeko helburuarekin, totemak jarriko dira udalerrietako kaleetan, “Kaixo Goierri!” kanpainaren mezua zabaltzeko: “Goierriko negozio txikiekin aurrera!”.

Kanpaina borobiltzeko eta ahalik eta pertsona gehienengana iristeko, Udaletako webguneetan bannerrak jarriko dira eta tokiko hedabideetan publizitatea ere egingo da.

BIDARI, Goierriko negozio txikien alde lanean

BIDARI lantaldean Lazkao, Idiazabal, Beasain eta Ordiziako Udalek parte hartzen dute eskualdeko udalen ordezkartzan, baita Goiekik, Ordizian elkarteak, Bareak elkarteak, LazkaOn elkarteak, Idiazabalgo Merkataritza elkarteak eta eskualdeko merkataritza teknikariek ere,

eta Goierriko beste erakunde batzuek ere parte har dezakete.

Goierriko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuak sustatzea eta tokiko kontsumoa bultzatzea du helburu, hainbat ekintzen bidez, eskualdeko negozioen arteko ezagutza eta lankidetzak sustatuz eta herriak eta negozioak bizirik mantenduz.